**UDAL BATZARRAK 2019KO APIRILAREN 10EAN EGINDAKO OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko hirian, bi mila eta hemeretziko apirilaren 10ean, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Saio Aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Nagore Zabala Arrieta eta Iñaki Rubio Torrientes Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Javier Garmendia Ondarra, Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu eta Xabier Arribillaga Beretxinaga Zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean biltzen dira, lehenengo deialdiz eta Idazkari lanetan Daniel Salazar Irusta jauna arituz.

**1.- 2019KO OTSAILAREN 7KO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Ikusirik, aho batez erabakitzen da 2019ko otsailaren 07an egindako saioaren akta onartzea, Batzarkide guztiei aurrez kopia bana bidali zaielarik.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.-** Alkatetzak jarraian zehaztutako dekretu bidez hartutako erabakien berri ematen zaio Udal Batzarrari:

- **Otsailaren 4ko 7/2019 dekretua.** Honen bidez, 2019ko 1. hiruhilabeteari dagokion, etxe, denda eta industrietako zabor-bilketa zerbitzuaren zergadunen errolda onartzea erabakitzen da.

- **Otsailaren 12ko 8/2019 dekretua.** Honen bidez erabakitzen da, Soraluze BHI ikastetxean egindako lanengatik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Ordezkaritzak eskatutako EIOZ-ren hobaririk ez egitea.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO EL DÍA 10 DE ABRIL DE 2019.-**

En la villa de Soraluze/Placencia de las Armas, siendo las 19:00 horas del día 10 de abril de 2019, previa convocatoria al efecto, se reúnen en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, los Sres. Tenientes de Alcalde, Dña. Patricia Borinaga Albéniz, Dña. Nagore Zabala Arrieta y D. Iñaki Rubio Torrientes y los Sres. Concejales D. Ramón Gallastegi Aldazabal, D. Javier Garmendia Ondarra, D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu y D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria y asistiendo como Secretario, D. Daniel Salazar Irusta.

**1.- APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 07 DE FEBRERO DE 2019.-** Vista, se acuerda por unanimidad, aprobar el acta de la sesión de fecha 07 de febrero de 2019, de la que se ha remitido copia a todos los Sres. Corporativos.

**2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-** Se da cuenta a la Corporación de los acuerdos adoptados mediante los siguientes Decretos de Alcaldía:

- **Decreto 7/2019, de 4 de febrero,** por el que se acuerda aprobar el padrón de contribuyentes del servicio de recogida domiciliaria, comercial e industrial de basuras, correspondiente al 1er trimestre de 2019.

- **Decreto 8/2019, de 12 de febrero,** por el que se acuerda denegar la bonificación del ICIO solicitada por la delegación de Educación del Gobierno Vasco, correspondiente a las obras realizadas en Soraluze BHI.

- **Otsailaren 12ko 9/2019 dekretua.** Honen bidez, 2019. urteari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda onartzea erabakitzen da.

- **Otsailaren 18ko 10/2019 dekretua.** Honen bidez, kudeaketako teknikari lanpostua betetzeko lehiaketa-oposaketa librerako onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, epaimahaiaren osaketa eta lehendabiziko ariketaren data onartzea erabakitzen da.

- **Otsailaren 28ko 11/2019 dekretua.** Honen bidez, A.Q.L. bitarteko funtzionario izendatzea erabakitzen da, N.M.B. funtzionarioaren ordez, 2019ko martxoaren 1ean hasi eta lanpostua bere jabeak bete bitartean gaixotasunagatik alta jasotzen duenean.

- **Martxoaren 26ko 12/2019 dekretua.** Honen bidez, Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea erabakitzen da.

- **Martxoaren 27ko 13/2019 dekretua.** Honen bidez, 2019ko 2. hiruhilabeteari dagokion, etxe, denda eta industrietako zabor-bilketa zerbitzuaren zergadunen errolda onartzea erabakitzen da.

- **Martxoaren 27ko 14/2019 dekretua.** Honen bidez, 2019/01 baja datan jasotzen diren eta kobratzeke dauden eskubideak ezeztatzea erabakitzen da.

- **Martxoaren 27ko 15/2019 dekretua.** Honen bidez, 2019/02 baja datan jasotzen diren eta kobratzeke dauden eskubideak ezeztatzea erabakitzen da.

- **Martxoaren 28ko 16/2019 dekretua.** Honen bidez, 2019/03 baja datan jasotzen diren eta kobratzeke dauden eskubideak ezeztatzea erabakitzen da.

**3.- SORALUZEKO UDALAREN 2018KO OTSAILAREN 16KO ALKATETZAREN DEKRETUAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA BERARIAZ**

- **Decreto 9/2019, de 12 de febrero,** por el que se acuerda aprobar el padrón de contribuyentes del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica, correspondiente al ejercicio 2019.

- **Decreto 10/2019, de 18 de febrero,** por el que se acuerda aprobar la lista de aspirantes admitidos/as y excluidos/as, la constitución del tribunal y la fecha del primer ejercicio del concurso-oposición libre para la provisión de la plaza de técnico/a de gestión.

- **Decreto 11/2019, de 28 de febrero,** por el que se acuerda nombrar funcionaria interina a A.Q.L., en sustitución de la funcionaria N.M.B., desde el 1 de marzo de 2019 hasta la cubrición de la plaza tras la reincorporación de la titular de la misma tras el alta por enfermedad.

- **Decreto 12/2019, de 26 de marzo,** por el que se acuerda aprobar la liquidación del presupuesto de este Ayuntamiento, correspondiente al ejercicio de 2018.

- **Decreto 13/2019, de 27 de marzo,** por el que se acuerda aprobar el padrón de contribuyentes del servicio de recogida domiciliaria, comercial e industrial de basuras, correspondiente al 2º trimestre de 2019.

- **Decreto 14/2019, de 27 de marzo,** por el que se acuerda anular los derechos reconocidos pendientes de cobro recogidos en la data de baja 2019/01.

- **Decreto 15/2019, de 27 de marzo,** por el que se acuerda anular los derechos reconocidos pendientes de cobro recogidos en la data de baja 2019/02.

- **Decreto 16/2019, de 28 de marzo,** por el que se acuerda anular los derechos reconocidos pendientes de cobro recogidos en la data de baja 2019/03.

**3.- DAR CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DENEGATORIA EXPRESA DEL RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO CONTRA EL DECRETO DE ALCALDÍA 9/2018,**

<u>**UKATZEN DUEN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.-**</u> Udal honen 2018ko otsailaren 16ko 9/2018 zk.ko Alkatetzaren dekretuaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa berariaz ukatzen duen ebazpenaren berri ematen zaio Udal Batzarrari.

<u>**DE 16 DE FEBRERO DE 2018, DEL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE.-**</u> Se da cuenta a la Corporación de la resolución denegatoria expresa del recurso de reposición interpuesto contra el decreto de Alcaldía nº 9/2018, de 16 de febrero de 2018, de este Ayuntamiento.

**4.-** <u>**BALTEGIETA KALEKO 2. ZK.AN DAGOEN KIROL- ETA KULTUR-ERAIKINA HANDITZEKO PROIEKTUA ONARTZEA, BAI ETA LANEN KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA ERE.-**</u> **Ramon Gallastegi** zinegotziak hitza hartzen du, honakoa azaltzeko: Proiektu hau bide dela, kiroldegia handitu nahi da, 450 metro kuadro gehiago emanez.

Proiektu honetan lanean dihardugu legegintzaldi hasieratik, baina aurten arte ez dugu horretarako ezinbestekoa den finantzaziorik lortu. Gipuzkoako Foru Aldundiak 250.000 euroko laguntza emango digu, 568.189,22 euroko kostu osoa duen proiektu hau gauzatzeko.

Legegintzaldi hasieran 830 bazkide zituen kiroldegiak. Orain 950etik gora dira eta eraikina txiki geratu da.

Premien balorazioa egitea eskatu genien teknikariei eta horien arabera idatzi da proiektua. Gimnasio berria, spinning gela, erabilera anitzeko gela eta komunak aurreikusten dira aipatu proiektuan.

**4.-** <u>**APROBACIÓN DEL PROYECTO DE AMPLIACIÓN DEL EDIFICIO POLIDEPORTIVO-CULTURAL SITO EN BALTEGIETA KALEA Nº 2, ASÍ COMO DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE REGIRÁN EL CONTRATO DE OBRAS.-**</u> Toma la palabra el concejal **Ramón Gallastegi** y expone lo siguiente: Con este proyecto se pretende hacer una ampliación del polideportivo de 450 metros cuadrados.
Es un proyecto en el que se lleva trabajando desde principio de legislatura, sin que se haya podido conseguir la financiación necesaria hasta este año, en el que la Diputación Foral de Gipuzkoa aporta 250.000 euros para su ejecución, con un coste total del proyecto de 568.189,22 euros.
A principio de legislatura el número de socios era de cerca de 830 y en la actualidad supera los 950, el polideportivo está colapsado.
Se pidió a los técnicos una valoración de las necesidades y en función de ésta se ha realizado el proyecto, que supone la construcción de un nuevo gimnasio, una sala de spinning, una sala multiuso y baños.

Bototara jarririk, Udal Batzarrak, gehiengoz, EAJ/PNVko (lau) eta PSE-EEko (bi) batzarkideei dagozkien aldeko sei botoz eta EHBILDUko batzarkideei dagozkien bost abstentzioz, ondorengo erabakiak hartzen ditu:

**LEHENENGOA.-** Baltegieta kaleko 2. zk.an dagoen kirol- eta kultur-eraikina handitzeko proiektua onartzea, BIRG arkitektura eta hirigintza lantegiko Xabier Rezabal Gurruchaga eta Luján Gurruchaga Odriozola arkitektoek idatzitakoa.

Sometido a votación, la Corporación Municipal por mayoría de seis votos a favor, correspondientes a los Corporativos de EAJ/PNV (cuatro) y PSE-EE (dos), y cinco abstenciones, correspondientes a EHBILDU, adopta los siguientes acuerdos:

**PRIMERO.-** Aprobar el proyecto de ampliación del edificio polideportivo-cultural, sito en Baltegieta kalea, nº 2, redactado por los arquitectos Xabier Rezabal Gurruchaga y Luján Gurruchaga Odriozola del taller de arquitectura y urbanismo BIRG.

**BIGARRENA.-** Baltegieta kaleko 2. Zk.an dagoen kirol- eta kultur-eraikina handitzeko lanak kontratatzeko espedientea onartzea, esleipen irizpide ezberdineko prozedura ireki sinplifikatuaren bidez, lizitazioa deituz.

**SEGUNDO.-** Aprobar el expediente de contratación de la obra de ampliación del edificio polideportivo-cultural, sito en Baltegieta kalea, nº 2, por procedimiento abierto simplificado con varios criterios de adjudicación, convocando su licitación.

**HIRUGARRENA.-** Kontratazioa arautuko duten administrazio klausula berezien plegua onartzea. (I.ERANSKINA).

**TERCERO.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares, que regirá la contratación. (ANEXO I).

**LAUGARRENA.-** Lizitazio iragarkia Euskal Kontratuen Erregistroan eta kontratatzailearen profilean argitaratu.

**CUARTO.-** Publicar el anuncio de licitación en el Registro Vasco de Contratos y en el perfil del contratante.

**BOSGARRENA.-** Kontratazio mahaiaren osaketa kontratatzailearen profilean argitaratzea.

**QUINTO.-** Publicar la composición de la mesa de contratación en el Perfil de Contratante.

**Unai Larreategi** zinegotziak adierazten du bi urte daramagula proiektua gora eta proiektua behera eta azken-azken momentuan iritsi dela finantzazioa. Eztabaidatik baztertuta ikusi dugu geure burua eta uste dugu partehartze aktiboagoa eduki behar genuela prozesu osoan. Ondo dago teknikariek euren iritziak ematea; hala ere, erabaki politikoek iritzi teknikoak baino gehiago behar dute oinarri.
Aukerak areagotu egingo dira, ados gaude. Baina hainbat gauza kanpoan geratuko dira, ezin izango zaielako erantzunik eman partehartze ezaren ondorio. Eztabaida ezberdina da aipatu kopurua gastatzea egokia den ala ez. Edonola, egia da aukera berriak sortuko direla bidea egokia izan ez bada ere.

El concejal **Unai Larreategi** dice que Llevamos dos años hablando del proyecto y finalmente llega la financiación in extremis. Nos hemos sentido un poco fuera del debate y pensamos que deberíamos de haber participado más activamente en el proceso. Está bien que los técnicos aporten su criterio, pero las decisiones políticas hay que tomarlas con algo más que decisiones técnicas.
Estamos de acuerdo en que se van a ampliar las opciones, pero hay cosas que se van a quedar fuera, a las que no se les va a poder dar una respuesta, fruto de la falta de participación en el proceso. Otro debate sería si es la cantidad adecuada para gastar o no, pero es cierto que se crean nuevas opciones a pesar de que el camino no ha sido el adecuado.

**Alkateak** zehazten du Inbertsio handia dela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpen garrantzitsua duena.

**El Alcalde** indica que se trata de una inversión muy importante, con un aporte importante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**5.- <u>URAREN ZIKLO INTEGRALA KUIDEATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA.-</u>** Udal Batzarrak, aho batez, **ERABAKITZEN DU**:

**5.- <u>CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA LA GESTIÓN DEL CICLO INTEGRAL DEL AGUA.-</u>** La Corporación Municipal, por unanimidad, **ACUERDA:**

**Lehena:** Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Soraluzeko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea, uraren ziklo integrala kudeatzeko (II. ERANSKINA).

**Bigarrena:** Alkateari baimena ematea hitzarmena eta berau indarrean sartzeko beharrezko diren agiriak sinatzeko.

**Hirugarrena:** Akordioaren berri ematea interesdunari.

**Alkateak** azaltzen du azken hitzarmena 2014koa dela eta 10 urterako sinatu zela. Baina Ur Kontsortzioak agortuta dauka, dagoeneko, 2014-2024 aldirako Soraluzerako zeukan diru-partida. Ondorioz, hitzarmenaren beste bost urterako luzapena dakartzagu gaur. Honek aldi berrirako diru-hornidura emango dio Ur Kontsortzioari eta Udalari 93.000 euroko ekarpena. Hitzarmena sinatuta, uraren ziklo integralaren kudeaketak Ur Kontsortzioaren esku egoten jarraituko du eta, aldiz, Udala arduratuko da euri-uren kudeaketaz.

**Unai Larreategi** zinegotziak esaten du diru hori 2024-2029 aldirako legokigunaren aurrerapen bat baino ez dela eta, ondorioz, zuzen kudeatu beharko dela. Gai hau ez da gaur amaitzen eta datorren legegintzaldian ere mahai gainean izango dugu.

**Alkateak** adierazten du gobernu-talde berriak gauzatu beharreko lan-jardunak aurreikusi beharko dituela eta horien kostua unean-uneko aurrekontuen gain hartu.

**6.- <u>DIRU-LAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA.-</u>** Udal Batzarrak, aho batez, ondorego erabakiak hartzen ditu

**Primero:** Aprobar el convenio de colaboración entre Gipuzkoako Ur Kontsortzioa y el Ayuntamiento de Soraluze, para la gestión del ciclo integral del agua (ANEXO II).

**Segundo:** Facultar al Alcalde para la firma del convenio y cuantos documentos sean necesarios para su entrada en vigor.

**Tercero:** Proceder a la notificación del acuerdo al interesado.

**El Alcalde** expone que el último convenio data del 2014 y se firmó para 10 años. A fecha de hoy, Ur Kontsortzioa ha agotado toda la partida asignada para Soraluze para el periodo 2014-2024, por lo que hoy traemos una ampliación del convenio para otros cinco años, lo que facilita a Ur Kontsortzioa la dotación económica para ese nuevo periodo y un aporte económico al Ayuntamiento de 93.000 euros. Con la firma de este convenio el ciclo integral del agua sigue en manos de UR Kontsortzioa y el Ayuntamiento se encarga de la gestión de las aguas pluviales.

El concejal **Unai Larreategi** dice que el dinero es un adelanto de lo que nos correspondería en el periodo 2024-2029, por lo que hay que gestionarlo adecuadamente. Este es un tema que no acaba hoy y que a lo largo de la siguiente legislatura seguirá encima de la mesa.

**El Alcalde** indica que el nuevo equipo de gobierno tendrá que prever las actuaciones a realizar y asumir el coste de las mismas con cargo a los presupuestos venideros.

**6.- <u>ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES.-</u>** La Corporación Municipal, por unanimidad, adopta los siguientes acuerdos:

-Diru-laguntzen ordenantza orokorrari **hasierako onespena ematea** (III.ERANSKINA).

-Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezartzen denaren arabera, interesdunek bidezko deritzoten erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Epe horretan inongo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordurarte behin-behinekoa izan den akordioa behin betiko onartutzat jo eta testu osoa argitaratuko da.

**7.- BAZTERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN DEBABARRENA ESKUALDEKO PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZAK ERREGULATZEKO ARAUDIA.-** Udal Batzarrak, aho batez, ondorego erabakiak hartzen ditu:

-Baztertzeko arriskuan dauden Debabarrena eskualdeko pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzak erregulatzeko araudiari **hasierako onespena ematea** (IV.ERANSKINA).

-Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezartzen denaren arabera, interesdunek bidezko deritzoten erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Epe horretan inongo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, ordurarte behin-behinekoa izan den akordioa behin betiko onartutzat jo eta testu osoa argitaratuko da.

**Patricia Borinaga** zinegotziak azaltzen du

-**Aprobar inicialmente** la Ordenanza general de subvenciones (ANEXO III).

-Someter el expediente a exposición pública mediante la publicación de anuncio en el Boletín Oficial Gipuzkoa durante el plazo de 30 días hábiles, según lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, a fin de que los/as interesados/as puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen pertinentes.

Una vez transcurrido ese plazo sin que se haya producido ninguna reclamación, se entenderá definitivamente aprobado el acuerdo hasta entonces provisional y se procederá a publicar el texto completo.

**7.- REGLAMENTO REGULADOR DE LA VIVIENDA TUTELADA PARA PERSONAS EN RIESGO DE EXCLUSIÓN DE LA COMARCA DE DEBABARRENA.-** La Corporación Municipal por unanimidad adopta los siguientes acuerdos:

-**Aprobar inicialmente** el Reglamento regulador de la vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión de la comarca de Debabarrena (ANEXO IV).

-Someter el expediente a exposición pública mediante la publicación de anuncio en el Boletín Oficial Gipuzkoa durante el plazo de 30 días hábiles, según lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, a fin de que los/as interesados/as puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen pertinentes.

Una vez transcurrido ese plazo sin que se haya producido ninguna reclamación, se entenderá definitivamente aprobado el acuerdo hasta entonces provisional y se procederá a publicar el texto completo.

La concejala **Patricia Borinaga** aclara

Maisuen Etxeko etxebizitza bat arautzea eta baztertzeko arriskuan dauden pertsonei bideratzea proposatu dela, eskualde mailan kudeatuko den etxebizitza hain zuzen.
Araudi hau onartu eta gero, eremurako beste etxebizitza bat egongo litzateke, Eibarrekin batera kudeatuko dena, eta beste bi etxebizitza, bat larrialdi egoeretarako eta bestea genero indarkeria kasuetarako.

que se propone la regulación de una de las viviendas de la casa de los maestros que se va a destinar a situaciones de exclusión social, es un piso de gestión comarcal.
Tras la aprobación del presente reglamento quedaría pendiente otro piso de área, gestionado conjuntamente con Eibar, y otros dos, uno de ellos para situaciones de emergencia y otro para violencia de género.

**8.- <u>SORALUZEKO TELEKOMUNIKAZIO ZENTROA OKUPATZEKO AKORDIOA.-</u>** ITELAZPIk Soraluzeko mugartean telekomunikazioetako zentro bat kudeatzen du herriko biztanleei zerbitzuak emateko.

Aipatutako zentroa Soraluzeko Udalaren jabetzakoa den lursail baten kokatuta dago. ITELAZPIk kudeatzen du 2003an sortu zenetik. Hala eta guztiz, gaur arte bere egoera patrimoniala ez da arautua izan.

Gaur egun, ziurtatu daiteke zentro hori beharrezkoa izango dela egungo zerbitzuak emateko eta etorkizuneko balizko zerbitzuak emateko. Hortaz, okupazio hori arautu egin behar da.

Bi aldeek uste dute beharrezkoa dela okupazioa eta horrekin lotutako bide-zorrak arautzea, hain zuzen ere, zerbitzuak modu baketsuan eta juridikoki segurtasunez ematen direla bermatzeko, eta horretarako aktari atxikitzen zaion hitzarmena sinatzea proposatzen da.

Bototara jarririk, Udal Batzarrak aho batez erabakitzen du aipatu akordioa **onartzea** (V. ERANSKINA).

**Alkateak** adierazten du Karakateko antena ondoan dagoen eraikinari buruz dihardugula. Itelazpi enpresak kudeatzen du aipatu eraikina, baina ez daukagu

**8.- <u>ACUERDO DE OCUPACIÓN DEL CENTRO DE TELECOMUNICACIONES DE SORALUZE.-</u>** ITELAZPI gestiona en Soraluze un centro de telecomunicaciones, al objeto de prestar servicios a la población del citado municipio.

El referido centro se encuentra enclavado en una parcela de terreno de titularidad del Ayuntamiento de Soraluze, siendo gestionado por ITELAZPI desde su creación en 2003. No obstante, su situación patrimonial no ha sido aún regularizada.

A fecha de hoy puede asegurarse que dicho centro será preciso para la prestación de los servicios actuales y de otros posibles futuros, por lo que la referida ocupación de hecho debe ser regularizada.

Ambas partes entienden necesario proceder a la regularización de la ocupación y de las servidumbres asociadas a la misma, a fin de garantizar una prestación de servicios pacífica y jurídicamente segura, por lo cual se propone la firma del convenio que se adjunta al acta.

Sometido a votación, la Corporación Municipal acuerda por unanimidad **aprobar** el citado acuerdo (ANEXO V).

**El Alcalde** manifiesta que estamos hablando de la construcción que se encuentra junto a la antena de Karakate, edificio gestionado por Itelazpi, pero con

inolako agiririk sinatuta beraiekin. Oraingo akordio honen bidez, adierazitako egoera arautu nahi da.

**9.- MERKATU PLAZAKO POSTUAREN ESLEIPENA.- Alkateak** jakinarazten du bere garaian eskaera bat aurkeztu zela merkatu plazan hutsik dagoen postu bat betetzeko. Jendaurreko erakustaldia pasa ondoren, arrandegia irekitzeko eskabide bat aurkeztu da.

Eskaera azterturik, eta beste eskaerarik ez dagoenez, merkatu plazako postua Jihad Nouassi jaunari bost urteko epez **esleitzea** erabakitzen da.

**10.- UDAL LANGILEEN 2019KO SOLDATA IGOERA.-** 2018/12/27an argitaratu zen EAOn 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretua. Horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2019. urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

Hain zuzen, 24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3. Bi artikuluan hau dago xedatuta:
-2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langileriaren antzinatasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino

el que no se tiene formalizado ningún documento. A través del presente acuerdo se pretende regularizar dicha situación.

**9.- ADJUDICACIÓN DE PUESTO DE LA PLAZA DEL MERCADO.- El Alcalde** informa que en su día hubo una solicitud para ocupar uno de los puestos vacantes en la plaza del mercado y tras el periodo de exposición pública, se ha presentado una solicitud para la apertura de una pescadería.

Estudiada la solicitud y no existiendo más que una, se acuerda **adjudicar** el puesto de la plaza del mercado a D. Jihad Nouassi, por un plazo de 5 años.

**10.- INCREMENTO DE RETRIBUCIONES DEL PERSONAL MUNICIPAL PARA EL 2019.-** El pasado 27/12/2018 se publicó en el BOE el Real Decreto-Ley 24/2018, de 21 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público.

El referido Real Decreto-Ley regula los incrementos retributivos para los empleados públicos para el año 2019 y en tal sentido prevé un incremento salarial fijo, más un porcentaje adicional de incremento ligado al crecimiento de la economía.

En concreto, el art. 3. Dos del Real Decreto-Ley 24/2018 dispone lo siguiente:

-En el año 2019, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,25 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo y sin considerar a tales efectos los gastos de acción social que, en términos globales, no podrán experimentar ningún incremento en 2019 respecto a los de

handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langileriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.

2018. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

-Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundea izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:
BPG 2,1aren berdina: %2,30.
BPG 2,2aren berdina: %2,35.
BPG 2,3aren berdina: %2,40.
BPG 2,4aren berdina: %2,45.

-Además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2019, otro 0,25 por ciento de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5 por ciento señalado, el incremento disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

PIB igual a 2,1: 2,30 %.
PIB igual a 2,2: 2,35 %.
PIB igual a 2,3: 2,40 %.
PIB igual a 2,4: 2,45 %.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPG-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPG-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPG-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldez aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, en lo que a incremento del PIB se refiere, se considerará la estimación avance del PIB de cada año publicada por el Instituto Nacional de Estadística (INE). Una vez publicado el avance del PIB por el INE y, previa comunicación a la Comisión de Seguimiento del Acuerdo para la mejora del empleo público y de condiciones de trabajo de 9 de marzo de 2018, mediante Acuerdo del Consejo de Ministros se aprobará, en su caso, la aplicación del incremento. Del citado Acuerdo se dará traslado a las Comunidades Autónomas, a las Ciudades Autónomas y a la Federación Española de Municipios y Provincias.

-Gainera, soldata masaren ehuneko 0,25eko igoera gehigarri bat baimendu ahal izango da, beste neurri batzuen artean, honakoak egin ahal izateko: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezarri, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuen artean berariazko osagarriak berraztertu,

-Además, se podrá autorizar un incremento adicional del 0,25 por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la

lanpostu mailako osagarriak homologatu edo pentsio planetan ekarpenak egin. Artikulu honetan 2018ko ekitaldian aurrekontu superabit egoeran zehaztutako Administrazioetan eta sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori ehuneko 0,3ra bitartekoa izan daiteke.

Aurreko guztia kontuan izanik, Udal Batzarrak aho batez **ERABAKITZEN DU:**

**Lehena.-** Langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko %2,25 2019/01/01eko eraginez.

**Bigarrena.-** Soldata masaren 0,3ko igoera gehigarria baimentzea. Aipaturiko munta 3. artikulua Bi, azken paragrafoan, edo aplikatzekoa den beste edozeinetan jasotako lege-formulen bitartez banatuko da, hau guztia beti negoziazio kolektiboaren eta udal autonomiaren barruan.

**11.- <u>ESKARI ETA GALDERAK.-</u>** Ondorengo eskari eta galderak egiten dituzte jarraian izendatutako batzarkideek:

a) **Alkateak** jakinarazten du pasa den astean onartu zela 2018. urteko aurrekontuaren kitapena, 398.734 euroko diruzaintzako soberakinarekin, eta hurrengo proiektuetara bideratuko dela:

- Igerilekuko forjatuaren konponketa: 233.000 euro.
- Hezetasun-kengailua: 20.000 euro.
- Ibilgailuak: 50.000 euro.

b) **Alkateak** adierazten du, Pagoeta Mediaren hitzarmenari dagokionez, datozen asteetan hitzarmen bat sinatuko dela Pagoeta Media S.L. produktorearekin, ekoizpen-etxe honek egindako obrak eta jarduerak formaltzeko helburuz, bai eta bide okupazioagatik eta kaleen itxieragatik dagokien tasa kobratzeko eta hiriko altzariak eta bideak

homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo en situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2018, este incremento adicional podrá alcanzar el 0,3 por ciento.

En atención a lo anteriormente señalado, la Corporación Municipal **ACUERDA** por unanimidad**:**

**Primero.-** Incrementar, con efectos 01/01/2019 las retribuciones del personal el máximo legal permitido, esto es, un 2,25% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018.

**Segundo.-** Autorizar un incremento adicional del 0,3 de la masa salarial. Dicha cuantía, se distribuirá mediante las fórmulas legales que se refieren en el art. 3. Dos, último párrafo, o cualesquiera otras que resultaran de aplicación, todo ello en el marco de la autonomía municipal y negociación colectiva.

**11.- <u>RUEGOS Y PREGUNTAS.-</u>** Se formulan los siguientes ruegos y preguntas por parte de los Corporativos que se citan:

a) El **Alcalde** dice que la semana pasada se aprobó la liquidación del presupuesto del año 2018 con un remanente de tesorería de 398.734 euros, que se va a destinar a los siguientes proyectos:

- Reparación del forjado de la piscina: 233.000 €
- Deshumectadora: 20.000 €
- Vehículos: 50.000 €

b) **El Alcalde,** en relación al convenio con Pagoeta Media, dice que a lo largo de las próximas semanas se va a proceder a la firma de un convenio con la productora Pagoeta Media S.L., al objeto de formalizar las obras y actuaciones realizadas por ésta, el cobro de las correspondientes ocupaciones viales y cierres de calles, así como la restitución

leheneratzeko.

de todo el mobiliario y vías urbanas a su situación original.

c) **Alkateak** gaineratzen du, halaber, datorren astelehenean, 19:15ean, herritar talde batek erakusketa egingo duela Udaletxeko pleno aretoan, udalerriaren egoera orokorrari buruz egin duten azterketaren ingurukoa. Zuek guztiok bertaratzea espero dugu.

c) **El Alcalde** añade también que el próximo lunes, a las 19:15 h., un grupo de personas del municipio van a realizar una exposición en el salón de plenos del Ayuntamiento sobre un estudio que han realizado, relativa a la situación general del municipio. Esperamos contar con vuestra presencia.

d) **Unai Larreategi** zinegotziak dio kezkatuta daudela hainbat gairekin eta hauen kudeaketak daraman abiadurarekin, gauden garaian gaudelako. Gure ustez, prozesuek bere erritmoa eraman behar dute eta ezin dira azkartu fetxen arabera. Esaterako, Ezoziko parkea.

d) El concejal **Unai Larreategi** dice que están preocupados con algunos temas y la celeridad con la que se están gestionando por las fechas en las que nos encontramos. Creemos que los procesos han de seguir los ritmos que necesitan y no forzarlos dependiendo de las fechas, como, por ejemplo, el parque de Ezozia.

**Alkateak** erantzuten dio azken erantzukizuna gobernu-taldearena dela eta gaiak atera egin behar direla. Ezoziko parkeari dagokionez esaten du, parke publiko guztiak hondatuta daudela azken 10 urtetan ez delako ezertxo ere inbertitu. Kasu zehatz honetan, erabiltzaileen segurtasunari lehentasuna eman zaio, gurasoek hala eskatuta.

**El Alcalde** le responde que la responsabilidad última es del equipo de gobierno y tenemos que sacar los temas adelante. En cuanto al parque de Ezozia, nos encontramos los parques públicos destrozados tras más de 10 años sin invertir en los mismos. En este caso en concreto, estamos primando la seguridad de los usuarios a solicitud de los padres.

**Patricia Borinaga** zinegotziak argitzen du gai hau batzordean jorratu dela. Egia da iritzi ezberdinak zeudela partehartze prozesuaren inguruan eta, azkenean, aurrera egitea erabaki da.

La concejala **Patricia Borinaga** indica que es un tema que se ha tratado en comisión. Es cierto que existían diferencias de criterios en cuanto al proceso de participación y finalmente se ha optado por tirar hacia delante.

**Lorea de Castro** zinegotziak gaineratzen du ez direla adostasun batera iritsi "Hezkuntza proiektua"ren oinarriak eta helburuak kontuan hartu ez direlako.

La concejala **Lorea de Castro** añade que no se ha llegado a un acuerdo porque os habéis saltado los principios y objetivos del "Hezkuntza proiektua".

Eta beste gairik ezean eta hogei orduak eta bost minutu direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat ematen da, hori guztia Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las veinte horas y cinco minutos, de orden de la Presidencia se levanta la sesión, de todo lo cual, como Secretario, certifico.